

# Sozialismoa ez da Ebanjelioa

Kristau gehienak, politikan, motelak izan ohi dira. Kontserbakoiak. Hori mila bider entzun dugu.

Hori esaten zuten gehienak, esplikazioa kristautasunean bertan aurkitu este zuten. Aztertzen ote zuten beren inguruko gizarte kristaua besterik? Mugikaitz eta nagi kolektibitate haundi guziak izan ohi dira. Kristautasunak ez dirudi kausa bakarra. Halare kristautasunak bere parte izan dezake. Aspaldian, behintzat, ez du erakutsi kolektibitateak astintzeko eragimenik.

Mediterraneoko ipar bazterrean kristautasunak baditu, itxuraz, nagikeriako arrazoi bereziren batzuk, hego bazterrean mohamedanismoak dituzkeen bezala. Kristautasun latino alfertzarra da. Grekoa ez biziago.

Kristau samalda handia lo badago, denak ez daude lo. Badira bizkorak eta bizkorregiak.

Katolizismo mediterraneoak politikari ekin dihonean, sarri agertu ditu mesianismo joera biziak. Politiko kristau gehienak beren kristautasunaz oso guti akordatu dira politika egiterakoan. Gaizki egongo da hori. Baina okerriak, la beti, asko akordatu direnak, izan dira.

Eskuin-eskuinetik, mesianismo adibideak ugari ditugu. Begira leihotik edonora.

Erdi aldean ere bai, gezurra badirudi ere. Maiz kantatu da Kristau Demokrazia gaitz guzien erremedio ta salbazio bezala, katolikoek zilegi duten politika bakar bezala, etc. Kristau Demokraziak alderdi moderatuak dira. Erdikoen eta moderatuen estremismo bat ere nola badagoen, pentsarazi behar liguke honek. Elizan, hierarkia goanean batik-bat, erdiaren halako estremismo bat nabari da aspaldion.

Eskuineko ta ezkerreko kristau mesianismo politikoak txarrak badira, ezkerrekoak ez lirateke hobeak. Horre-

lako zerbait ere ikusten hasiak bait gara.

Eginkizun txalogarria da, kristauei sozialista izateko posibilitatea dutela, erakustea. Kristauek sozialismo bidetik ekitea. Lan hori *Kristauak sozialismoaren alde* ekintzak burutu dezake. Konzientzia soziala oso bizkortu da azken urteotan. Eta borondate sozialaren prakti bide bat sozialismoa izan daiteke.

Baina sozialismoa ez da ebanjelioa.

Horixe iruditzen bait zaigu zenbait Kristo-gauchismoaren okerra. Kristero guzien pretentsioa izan da hori. Kristau sozialistak ezin abia litezke mesianismo bidetik. Ez dugu ikusten, horrela kristautasun politiko benetan berrikeri nola litzatekeen posible. Eta sozialismorik apenas iruditzen zaigu posibleago, sozialismo intolerante dogmatikoa ezpada. Kristo Erregeren sozialismoak ez daduka zergatik Kristo Erregeren faxismoa baino hobe izan.


Sozialismoa ez da kristautasunaren nahitaezko ondorioa. Ondorio posible bat da.

Sozialismo kristau batek ez liguke batere mesederik egingo, edozein kristau zintzok sozialista izan beharra duela, buruan sartu edo behintzat pentsarazi nahiko baligu. Kristau guziek izan behar luketen gauzarik ez dago politikan. Gainera, kristauok, izan behar genukeen gauza asko, batere ez izateko eskubidea, esijitzen dugu, gogoak ematen badigu edo ez badigu. Kristau onak, gure ustez, kristau txarra izateko eskubidea du beti.

Absolutoa Jaungoikoak egin zuenari esaten bait diogu. Ez gizonak egin dezakeenari.

Edozein kristauk, ez duela nahitaez sozialista izan behar, baina izateko aukera duela, horra sozialismo kristau baten oinarria. Oinarri posiblea, alegia.

JOXE AZURMENDI



**aurrezki kutxa  
ziurtasuna  
eta geroa**



**CAJA DE AHORROS  
MUNICIPAL  
DE PAMPLONA**